

ARKIERA BAT



Udako egun batez
goiz jeikirik oso,
belar soro batian
etzan ta eroso,
arkitu nuben gizon
bat bizar zuriya,
zarra, larogei urte
zituena iya:
etzuelako non lo
egiñik arkitu,
gizagajua soro
artan zan gelditu,
brusa sar me bat zuben
galtzak ere zarrak,
zankuak odoletan
eriturik larrak;
eskuak saminduak,
zikin ta itsusi,
beatz tarterik ez det
ain charrik ikusi;
artesziz beterikan
zeguen guztiya,
malko garratz ta intzez
goi ta be bustiya:
ezpartzin puskatuak
galtzerdirik gabe,
ainbeste urte, eta

zorigaitzen jabe;
arpegia zimurra
ibillera nagi,
goseak eragiten
ziyon begiz argi;
ta zer penagarria
zeguen lurrian,
bakartasuna baizik
etzeukan urrian;
alako batez niyon
modu onez esan,
nere eskeñi ona
pozturik ar zezan,
alcha zedilla andik
ondo goza zediñ,
karidadezko gauz bat
nai niyola egiñ;

ala premiazko ark
alcha ta segiran,
musuz busti ninduen
lepuaren jiran:
eta segitu ziran
atzetikan pozik,
ezin kendurik bere
gorputzetik otzik;
su onduan piska bat
zanian gozatu,
eta jatez zalarik
barrundik osatu,
sartu zan garbi eta
oi zuri guriyan;
ezin jarririk bere
poz ura neurriyan,
asi zan barrundikan
sentitzen egarri,
eta dardarizuan
indartzen ugari;
geniyonian gaizki

zegola igarri,
segiduan apaiza
geniyon ekarri;
Sakramentu guztiyak
zituenez artu,
eriotzeko trantze
estuan zan sartu:
kabiko chorikume
gaisotuen gisan,
gizagajua ere
oi zuriyan ill zan.

Neurri gabe estutzen
dan korapillua,
da gure eriotzak
duben ispillua;
badirade batera
poz ta penak biltzen,
batek edo bestiak
gizona du illtzen.

JUAN IGNAZIO URANGA.

